

K...eta! ittoa!

2016-III-4

964 zkia.

Andrazkoak argi premian Eibarren ere



R.P.S. 175/15 I.L.G.

2. betaurrekoak
DOAN
GAMA ALTUKO
mó progresiboak
erosita
197€

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira

www.multiopicasgipuzkoa.com

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

Osasun gida

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales **UniverSalud**

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ginekologoak

M^a Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Uxue Igarza

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Zatoz Euskal Jaira

50 urte eta gero, Euskal Jaiak bere bidea jarraitu behar du. Bide hori denon artean egin behar dugu. Gogoia eta denbora dugunon artean edota gure ekarpena, txikia bada ere, egin nahi dugunon artean. Hori dela-eta, animatu eta etor zaitez martxoaren 9an, datorren eguaztenean, arratsaldeko 19:00etan Klub Deportiboko bilera gelan egingo dugun batzar irekira. Denon artean 51. Euskal Jai onenak lortu ditugun.

Klub Deportiboko
Kultura Batzordea



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LABA-TXIRTXIL.- Etxeetan egoten den txirtxila. "Laba-txirtxillak, Gabonetan be, ixildu gabe kantatzen dau".

LABAIN.- Bizarra kentzeko labana. "Gure aittittari ez jakon atxurra gustatzen, beti labainiak".

LABAN EGIN.- Labandu, irrist egin. "Platano azal batekin laban egin eta eskuturra hautsi eban".

astean esanak

"Ekuadorreko mugimendu indigenak ez du inondik ere nahikotasun mailarik ematen jatorrizko hizkuntzen gaien. Egia da une batzuetan horien presioa garrantzizkoa izan dela hizkuntza batzuen estandar idatzia lortzeko, hezkuntza elebiduna sortzeko eta Konstituzioan errekonozimendua izateko. Baina azken urteotan jaso ditugun zantzu guztiek eta tokatu zaizkigun bilerek erakusten digute diskurtsoetik harago ez direla pasatzen. Gidari indigenak gaztelaniaz ari dira bere seme-alabekin gehienetan"

(JON SARASUA, IRAKASLEA)

"Badira gure Euskadi autonomikoan ikasitako ikasleen %10 erdara hutsez egin dutenak unibertsiterainoko bidea. Kontua da guraso horiek zilegi dutela esatea ez dut euskararekin ezer jakin nahi, *de paso* daudelako. Legearen arabera, X eredu da. Guri, aldiz, ez zaigu onartzen eskolan ez dut ezer jakin nahi erdararekin, nahikoa dut kalean entzuten dudanarekin esatea. Zoritxarrez, zenbait euskaldun alde egiten hasi dira hemendik, lan bila. Haientzat egokia izango litzateke eskolan E eredu sortzea: euskara eta english. Edo XE eredu, dena ingelesez emanda. Haiek ere *de paso* daude"

(JOSE MARI PASTOR, ZUTABEGILEA)

"Baskismoa eta euskaltasuna, biak dira arrazoizkoak. Baskismoa ona izan daiteke ezagutzara erakartzeko, baina pozoia da erabilera sustatzeko, espainola eta frantsesa normaltzen dituelako. Euskaltasuna agian ez da onena izango ezagutzara erakartzeko, baina ezinbestekoa da erabilera sustatzeko. Identitatea ez da hizkuntza baino garrantzitsuagoa eta, erdigunean jarri izan bada, nork bere herriko hizkuntza ez jakiteak sortutako deserosotasun eta identitate krisiagatik izan da. Ala posible al da euskaraz egitea euskal kulturaren inguruko ideia jakin bat izan gabe?"

(IBAI IZTUETA, PENTASALARIA)



LIERNI IBARGUTXI

Jarriotik kerizara

Sare sozialetako profilak itxi ditut. XX. mendean iltzatuta bizi naiz, seguru. Zalantza eta susmoa ez ditut guztiz aldentzen sare jardunean. Byung-Chul Han pentsalariak *Gardentasunaren gizartean* zera dio: "Googlek eta sare sozialek, askatasun espazio gisa aurkeztu arren, forma panoptikoak hartzen dituzte. Egun, ohiko ustearen kontra, kontrola ez da egiten askatasunaren eraso gisa. Aldiz, norberak nahita eskaintzen dio bere burua begirada panoptikoari. Jakinaren gainean, panoptiko digitala laguntzen dugu, biluztu eta geure burua erakusten dugun neurrian".

Twitterreko kontua itxi nuela kontatu nion berriki txiolari den bati. Ez nekien zer idatzi eta informazio-jario amaigabeak zoratu egiten ninduen (filosofoak: "Komunikazio eta informazio gehiagok ez du berez mundua argitzen"). Lagunak erantzun zidan, andrazko eta euskaldun izanik, egon behar nuela Twitterren, espazio hori bete, *militanteki*. Han-ek: "Erakusteak eta ikusgai jartzeak ez dute funtsean boterea lortzeko balio. Hor ez da boterea bilatzen, arreta baino. (...) Boterea eta arreta ez datoz bat. Boterea duenak bestea dauka, beraz arreta lortu nahi izatea ez da beharrezkoa". Pentsatzeko moduko berbak...

Momentuz, behintzat, lasaitua hartu dut jario digitaletik urruntzean, eguzkipean kiskali eta gero, keriza aurkitu berrian bezala.

Emakume Egunaren jatorrixa goguan

Atzo zabaldu eben Topalekuan Emakumeen Egunaren harira antolatu daben "Nondik norra?" eta "Emakume iraultzaileak" erakusketia. Antolatzaillak Martxuaren 8xaren jatorrixa gogora ekarri nahi izan dabe eta, horregaittik, argazkixeri laguntzen detsen testuetan gertakari historikuari errebasua emon detse, "jendiak mundu maillan urtero gogoratzen dan eguna nondik datorren jakin eta gogoratu deixan". Hillaren 13ra arte ikusgai egongo dan erakusketia egun osuan bisitatzeko aukeria egongo da, tabernatik sartuta.

Horrez gain, datorren asteko eguaztenerako proiektiñua eta liburu aurkezpena antolatu dittue: 19:00etatik aurrera "Prohibido recordar (Debekatuta dago oroitzea)", Txaber Larreategik eta Josu Martinezek zuzendutako dokumentala emongo dabe eta, jarraixan, "Educacion, memoria e historia de las mujeres vascas", Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argittara emondako liburuaren presentaziñua hartuko dau Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretuak.



eibartarrek erabiltzen dabe teleasistentzia zerbitzua. Azken egunotan Madrilgo enpresa batek zerbitzua hillian 40 eurotan eskintzen ei dabil, baiña tarifa bakarra hillian 4 eurokoa da.

Zaborren gaikako bilketia urtetik urtera hobetzen

Debabarreneko Mankomunitateko gaikako bilketaren gaifeko datuak aurkeztu zittuen aurreko barixakuan eta, azaldu ebenez, hondakiñen gaikako bilketiaren porzentajiak urtetik urtera gora egitten segitzen dau: 2015ian Mankomunitadiak jaso eban zaborra-

ren %39'66 gaika sailkatutakua izan zan (2014ko datuekin alderatuta, porzentajiak ixa lau puntu egin dau gora). Bost urteko tartian gaikako bilketaren kopurua bikoiztia lortu dau Mankomunitadiak, 2011n %20 izatetik 2015ian %39'66 izatera pasatuta.

Arcadio Benitez Mankomunitateko presidentiaren berbetan, "gaikako bilketaren inguruko datuak onak dira, baiña 2020. urterako helburutzat Europak ezarritako %50era ailegatzeko biharrian segidu bihar dogu, jendia gehixago konzientziatu eta parte hartzeko".

Datuak herririk herri begiratzuz gero, emaitzik onenak Eibarren (% 43'23), Elgoibarren (% 43'28) eta Mallabixan (% 44'27) lortu dira, hiru udalerrixetan Gipuzkoako gaikako bilketaren bataz bestekua (%42'3) gaintitu da eta. Halanda be, sortzen dittugun hondakiñen bolumenak gora egitten jarraitzen dau, urtebeteko tartian 27.547 tonatik 29.108 tonara pasau da eta. Bataz beste, biztanle bakotxak 398'73 kilo zabor sortu zittuan iaz (2014an, 376'27 kilo).



Eibarren jaso dira eskualdeko daturik onenak gaikako bilketari begira. Bataz beste, bakotxak ixa 400 kilo zabor sortzen dogu urtian.



Etxia erre zan atzo Arraguetan

Atzo Arragueta kaleko etxe batian sua piztu zan goizeko 07:00ak aldera. Larrialdixetako zerbitzuak azkar ailegau ziran, baiña egurrezko etxe zaharra izatian suak oso azkar erre eban dana eta suhiltzailliak luzaruan jardun eban amatatzeko biharrizan. Sua 19. zenbakixan piztu zan, azken pisuan, eta 45 urteko bizilaguna 2. maillako erredure-

kin Gurutzetako Ospitalera eruan bihar izan eban. Larrialdi zerbitzuetakuak aldameneko Pegoratik (21. zenbakitik) zazpi edo zortzi lagun etera zittuen, badaezpada. Edozelan be, suak kalte haundixa eragin zetsan eraikiñari eta aurrera begira zer egingo daben erabagitzeko adituen baloraziñuari itxoin biharko detse.



autuan

JABETZE ESKOLIA

Eibarko andrazkuendako Jabetze Eskolako ikastaro barrixetan izena emoteko epia zabalik dago: "Lidergoa, generoa eta adimen-emozionala", "Gatazkak konpontzeko tailerra", "Jende aurrean hitz egiteko tailerra" eta "Orientazioa mendian" izenburukuetan parte hartzeko izen-emotia Pegoran egin biharko da. Informaziño gehixagorako andretxea@gmail.com helbidera idatzi, 943 70 08 28 telefonora deittu edo **Andretxearen webgunian** begiratu leike.

LAN ESKINTZA

Erdi maillako ingurumen teknikari bat bittarteko funtzionarixo gisa lehiaketa-oposiziño askez aukeratzeko oiñarrixak eta deialdixa kaleratu dittu Eibarko Udalak. Tokiko Gobernu Batzarrak otsaillaren 19xan onartutako oiñarrixak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argittaratu zittuen aurreko astian eta eskaeriak apirillaren 5era arte jasoko dittue.

FM Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com

KOLORLAN
PINTURAK

San Andres
Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Debabarrena-Truk azokia

Martxuaren 26xan Debabarrena-Truk, truke eta bigarren eskuko azokia egingo da Untzagan, 10:00etatik 15:00etara. Debanatura, Ingurumen eta jasangarritasun heziketarako alkartiaren eskutik estreñnekoz egingo dan azokia Eibarren aurkeztu eta gero, antolatzaillieri eskualde osora zabaltzia gustauko litxakixe. Alkartiak, ikastetxiak zein partikularrak eukiko dabe azokan parte hartu eta postua ipintzeko aukeria.

Goizeko 10:00etan zabalduko dabe azokia eta 11:30ean "Jolasten eta birziklatzen" umiendako eskulan taillarrak hasiko dira. Eguardixan, barriz, 7-10 urte bittarteko umiendako gynkana pre-

parau debe. Horrekin batera, Debabarrena-Truk stand informatibuan eskualde maillan hondakiñen prebenziñuaren inguruan martxan daken kanpaiñiari buruzko informaziñua emongo dabe eta aldamenian, Trukeleku izenekuan, trukerako gauzak lagatzeko gunia egongo da. Izen-emotiak 5 euro balixo dau eta diru hori proiektu sozialen batera bideratuko dabe, FIARE Banka Etkuaren bittartez. Azokan parte hartzeko edo informaziño gehixago jasotzeko 695 783 656 / 943 19 11 72 telefonuetara deittu, debanatura@hotmail.com helbidera idatzi edo herriakgarbirikzbb.blogspot.com.es/ webgunian begiratu leike.



Paella-jan solidarixua domekan

Domekarako paella-jan solidarixua antolatu dau Lagunak haur-foball alkartiak. Ekitaldixan batzen daben diruaren erdixa alkartera bideratuko da eta beste erdixa AFESD umien gaixotasun ez diagnostikatuen alkartiari emongo detse. Untzagan egingo dabe ekitaldixa: goizeko 11:00etatik aurrera pintxuak eta edarixak egongo dira salgai eta 13:00ian hasiko dira paellia banatzen. Tiketak egunian bertan ipiñiko dittue salgai, paella platera 3 eurotan eta edarixak euro batian. Horrez gain, jokalarixak siñatutako Eibar foball taldiaren kamisetia eta Errealaren kontrako partidua ikustera juateko sarrerak zozketatuko dittue (txartelak euro batian salduko dittue).

Eraso sexistaren kontra

Oin dala egun batzuk Txontan neska baten kontra gertatutako erasua salatzen alkarretaratzia egin zan astelehengan Untzagan, Txontako bizilagunak deittuta. Auzokidiak irakorri eben agirixan neskiari gertatutakua salatziarekin batera, auzuak gaur egunian bizi daben egoerari buruz kejatu ziran eta, bestiak beste, inguru horretan segurtasuna areagotzeko neurrixak hartzia eskatu zetsen udalari. Nalua emakume taldekuak be ekitaldixan parte hartu eben, "Ez dugu inolako eraso sexistarik onartzen" ziñuan pankartarekin.

Udalak be eraso sexista "ezbairik gabe eta aho batez" arbuia eban aurreko barixakuan eta, horrekin batera, Berdintasun Saillaren bittartez, gaztiari zein famelixakueri bihar dabena eskintzeko prest daguezela emon zetsen aditzera.



Udalak be "ezbairik gabe eta aho batez" arbuia eban erasua. Silbia



**LAURA MARTINENA
URIBESALGO**

I. URTEURRENA
EIBAR 1970-02-28
GASTEIZ 2015-03-06

**BETI GURE OROIMENEAN,
GURE PENTSAMENDUETAN,
GURE BIHOTZEAN,
BETI GUREKIN.
MAITE ZAITUGU
ZURE KUADRILA**



Atzo atxilotu eben Naroa Ariznabarreta



Naroa Ariznabarreta atxilotuta eruan eben atzo, holan aurreko egunian epailiak emondako agindua beteta. Eibar-tarra 2007an Jarrai-Haika-Segi auzixa salatzeo A-8 autobidia moztia gaitik auzipetu eben, beste lau gazterekin batera, eta eguaztenerako deittuta eguan epaketara ez agertzian, epailiak atxilotu eta espetxeratzeko agindua emon eban. Eguazten arratsaldian, Eibarko Librek deittuta, "Epaketa politikorik ez! Naroa Libre" goiburuko pankartiarekin manifestaziñua abiatu zan Untzagatik.

Ainara Ladron eta Aritz Azkonarekin batera, hasieratik desobedientziaren aldeko hautua hartu eben hirurek eta horregaitik ez ziran epaketara juan. Epailiak beste bi gaztiendako be atxilotze eta espetxeratzeko agindua emon eban.

Nagusixen Azokia egingo da apirillian

Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegu eta Berrikuntza sailak antolatuta, zaharrendako zerbitzua emoten daben Eibarko enpresen eskintza ezagutzera emoteko azokia egingo da apirillian (16xan eta 17xan). Holan emon eben aditzera Alberto Albistegi zinegotzixak eta Pilar Pujana teknikarixak aurreko asteko barixakuan egin dako agerraldixan: "Nagusixendako produktu eta zerbitzuak dittuen herriko enpresak eukiko dabe azokan parte hartzeko aukeria eta aste honetan, eguaztenian azalpenak emoteko billeria egin eben".

Parte hartu nahi dabenendako izen-emo-

tia astelehenian zabalduko dabe eta 17ra arte egongo da zabalik, Pegoran (izen-emotia duan izango da). Bestalde, billerara juaterik ez ebenak azokan parte hartzeko interesa izanez gero, Garapen Ekonomikoa, Enplegu eta Berrikuntzarekin kontaktuan ipiñitta azalpen guztiak emongo detsez. Antolatzailliak herriko gremixo eta enpresak azokan parte hartzera animau nahi dittue: "Eibarren lau biztanletik bat zaharra da, kolektibo horren garrantzixa gero eta haundixagua da eta, horrekin batera, ekonomixan daken eragiñak be gora egi-tten dihardu etenbarik".



PEDRO AZPIAZU ELIZBURU (2016-II-22)

Zu joan zara, baina, zureganako
GURE MAITASUNA ez.
EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO
izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

— ETXEOEK —



Martxoaren 8tik 20ra "Itsaspeko bihotzak" areto literarioa hartuko du Eibarko liburutegiak. Udaleko Berdintasun Sailak eta Juan San Martin Liburutegiak elkarlanean antolatu dute Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, eta 8-16 urte bitarteko haur eta gazteentzat pentsatuta dago. Haur literaturaz baliatuz, genero berdintasuna jorratzen da Galtzagorri Elkarteak diseinatutako areto literario honetan, horretarako disziplina artistiko desberdinak erabiliz (arte ederrak, diseinua, ikus-entzunezkoak, antzerkia...). "Itsaspeko bihotzei" buruz gehiago jakiteko Izaskun Jauregi Galtzagorriko idazkari teknikoarekin egon gara.



Izaskun Jauregi (Galtzagorri elkarte): "Genero berdintasuna eta hezkidetzaz lantzen dira areto berri honetan"

- Nola lantzen da genero berdintasunaren gai "Itsaspeko Bihotzak"-en?

Aitziber Alonsok, Mireia Delgadok eta Miren Guillok diseinatu eta zuzendutako areto honek irakurtzeko zaletasuna sustatzeaz gain, genero berdintasuna eta hezkidetzaz lantzea du helburu, euskarazko haur literatura oinarri hartuta.

"Itsaspeko bihotzak" aretoan gauzatzen den libilbide didaktikoa, itsaso batean kokatuta dauden bost gunetan oinarritzen da. Gune bakoitzean lantzen den eduki ideologikoa artearen bitartez egia bihurtzen da. Ilustrazio, artisau elementu eta liburuaren bitartez lortzen da helburu hau eta txoko bakoitzean, modu desberdinean egiten da edukiaren lan-keta hori: ipuintxoak kontatuz, ikus-entzunezkoak ikusiz, abestitxoak kantatuz, jolasak eginez... Hala, besteak beste, Aitziber Alonsoren lanaz gain, Elena Odriozola eta Eider Eibarren ilustrazio lanak biltzen ditu "Itsaspeko bihotzak" aretoak. Aipatutako bost txoko horietan, genero rolak eta identitatea, lanbideak, emozioak, etxeko lanak eta zaintza eta harremanen inguruan hausnartu eta jolasten dute hurrek.

- Ipuinak gure errealitate soziokulturalaren isla dira? Genero bereizketa igartzen da haur eta gazte literaturan?

Bai, ipuinak gure errealitate soziokulturalaren isla dira. Bertan, sexu-genero bereizkeria txertaturik dago bete-betean eta arrakasta handiz egiten dute estereotipoen zabalpena; umeek arin barneratzen baitute irudietan zein testuetan datorren informazio pila, askotan ipuinaren garapenarekin zeri-kusirik ez badu ere. Horregatik Galtzagorri Elkarteak genero berdintasunaren gaiari heldu nahi izan dio areto berri hau sortzerakoan.

Galtzagorri Elkartearen haur eta gazte literaturarekin lanean dihardugu egunero. Material asko pasatzen da gure eskuetatik egunerokotasunean eta aspaldi kezkatu gaude haur zein gazte literaturan ageri diren neska eta mutilen estereotipoekin. 2011n hasi ginen orain aurkezten dugun areto literario hau abiatu nahian. Horretarako Miren Guillot eta Mireia Delgado pedagogo eta genero gaietan adituei eta Aitziber Alonso ilustratzaileari eskatu zien Galtzagorri elkarteak areto literario bat sortu eta diseinatzeko. Beraz, "Itsaspeko Bihotzak" aretoaren helburuetako bat da Literatura hezkidetzaila ezagutaraztea ume zein helduei: Haur literatura androzentrikorik gabeko espazio bat sortuz, emakume eta gizonentzat eredu irekia planteatzen duten liburuak ezagutaraziz, familia eredu anitzak erakusten dituzten ipuinak erabiliz eta estereotiporik gabeko pertsonaiak di-

"Areto hau berritzailea da erabat. Izan ere, ez baitago Haur Literatura baliatuz genero berdintasuna lantzen duen honelako beste diziplinarteko jolasik. 8-11 eta 12-16 urte bitarteko haurrentzat prestatua dago. Herri edo hiri bakoitzean gutxienez 10 saio gidatu eskaintzen dira, 25 hurrez osatutako taldeentzako. Saioak goizez izaten dira eta arratsaldez familientzako nahiz hezitzaileentzako saioak ere eskaintzen ditugu"

tuzten lanak ezagutzen. Eta aldi berean, haurren irakurtzeko zaletasuna sustatzea.

- Galtzagorri elkarteak "areto literarioak" prestatzen eskarmentua dauka. Nolako berezitasunak dituzte?

Jolas literarioak dira gure areto literarioak. Haur eta Gazte Literatura erabiliz haurrak jolasten jartzea da hauen helburua. Azken finean, haurren irakurzaletasuna sustatzea. Diziplina ezberdinak erabiliz sortuak dira ordea. Beraz, alor ezberdinetako profesionalen elkarlan handia egoten da areto guzti hauen abiapuntuan. Galtzagorri Elkartearen areto gehienak Itziar Zubizarreta idazle, ipuin kontalari eta irakurzaletasunaren sustapenean adituak sortu eta zuzendu ditu eta hauetako gehienetan Aitziber Alonso ilustratzaileak egin du diseinu eta artisau lana.

Liburutegietan muntatzen dira eta haurrak bertara etortzen dira jolastera taldeka, gehienetan eskolatik. Dinamizatzaile bat egoten da horretarako Galtzagorriaren areto bakoitzean. Hurrek gidari horrekin batera egiten dute aretoaren bisita eta bertako dinamika. Izan ere, hurrek modu aktibo batean hartzen dute parte areto hauetan.

Badira hamar urte baino gehiago Galtzagorri aretoak sortzeari ekin zionetik. Orduetik, gai ezberdinei lotutakoak sortu ditugu: Irudiz Irudi (ilustrazioaren ingurukoak), Haur Poesia aretoa (poesiari buruzkoak), Adur adur ez naiz zure beldur (beldurrari buruzkoak), Animaliek hizketan zekiten garaian (alegiei buruzkoak), Kontuari Kontu (ipuin tradizionalen ingurukoak)... Beraz, areto bakoitzean Haur literatura erabiltzen dugu haurrak jolasten jarri eta jolas horren bidez gai bat landu dezaten. Egia esan, arrakasta handiko proiektuak izan dira lehen aipatutako guztiak.

Martxoaren 8an ospatuko den Emakumeen Nazioarteko eguna dela eta, Udaleko Berdintasun arloak, Emakumeen Mahaiaren laguntzarekin, hilabete osorako egitaraua prestatu du, ekintza ugarirekin. Atzo ekin zioten Martxoaren 8rako egitarauari, "Emakumeak Kirolean" izenburuko mahai-inguruarekin eta gaur, berriz, Eibarko Antzerki Jardunaldien 39. edizioarekin bat eginik, Carlos Martinek zuzendutako "Arte de las putas. Una historia de amor" antzezlanaren eskainiko da Coliseo antzokian, 20:30etik aurrera.

Emakumeek margotutako hilabetea

Bihar arratsaldeko 17:00- etarako "Errugbi Zinta" kirol-jarduera prestatu dute, Unibertsitate Laboraleko kiroldegian, parte hartzera animatzen diren emakume eta neska guztientzat. Eta jarduerara lasaiagoa nahiago dutenentzat, berriz, Armagintzaren Museoa ordu berean hasiko den tailerra prestatu dute: "Zer nolako biharra emakumeena!" izenburuari jarraituta, belaunaldien arteko topaketa antolatu dute "8-99 urte bitarteko ama eta seme-alaba, amona eta bi-loba, zein izeba eta ilobentzat.

Eibarko emakumeen ofizioen irudiekin osatutako 'Memory Jolas' baten bitartez, belaunaldi desberdinen arteko elkar ezagutza bultzatuko dugu eta, horrekin batera, XIX. mende amaieratik gaur egun arte, lan munduan Eibarko emakumeek betetako tokia mahai gainean ipiniko da". Jarduera euskeraz garatuko dute eta parte-hartzea doakoa izango da, baina plazak bete arte izena ematea eskatzen dute (Museoa bertan edo, bestela, internet bitartez, www.armia-eibar.eus helbidean). Eta aste-



Aitzindariak izandako erraketisten inguruko erakusketa ikusgai egongo da Portalean martxoaren 11tik apirilaren 3ra arte.

burua ondo amaitzeko, domekan Donostian Lilatoia lasterketa egingo dela aprobetxatuta, 10:00etan Boulevardean hasiko den "Eibarko emakumeak Donostian" izeneko erakusketa egingo dute.

Martxa Lila, bazkaria eta kontzentrazioa

Martitzenean ospatuko den Emakumeen Nazioarteko Egunerako, bestalde, horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte: 11:30ean Amañako Berdintasunaren pasealekutik (Eibar-Ermua unibertsitate paretik) Martxa Lila abiatuko da. Parte hartzera animatzen direnei kolore horretako zerbait eramatea eskatu dute antolatzaileek. Horrekin batera, Andretxean izena eman dutenek bazkaria egingo dute 14:30ean Ipur sagardotegian. Eta arratsaldeko 19:00etarako Untzagan elkarretaratzea deitu dute, "Ez gauda jokoz kanpo, martxan gaudu" goiburuari jarraituta.

Emakumeen Eguna pasatuta ere, horren inguruko egitarauak hurrengo egunetan ere jarraituko du. Martxoaren 9an, eguaztenean, Juan San Martin



Bihar errugbi zintaz gozatzeko aukera eskainiko dute Hezkuntza Esparruan. **Ramon Beitia**

liburutegiaren ekimenez Portaleko areto nagusiak Elene Lizarralderen "Rocío en el corazón" liburuaren aurkezpena hartuko du, 19:00etan hasita.

Datorren asteko barixakuan (hilaren 11n), berriz, "Erraketistak: gure aitzindariak gogoa" erakusketa aurkeztuko dute eta, horrekin batera, Patricia Espinarren eskutik "Emakumeak plazan" doku-erreportaiaren eta "Pilota Girls" laburmetraiaren proiektzioa egingo dira, 18:30ean, Portaleko erakusketa aretoan. Egun berean, 19:00etan, Pagatxak eta Defibelek antolatutako zine forumean "Million dolar baby" pelikula ikusteko aukera izango da Portaleko areto nagusian. Eta hurrengo egunean, goizeko 10:00etan Untzagatik Sosola baserrira talde-ibilaldia egiteko abiatuko dira eta, hara ailegatzean, herri kirolak eta bestelakoak egiteko asmoa daukate. Egitaraua biribiltzeko, martxoaren 18an, Nalua talde feministaren aurkezpena eta "Mantazpitik" poesia-musikatu emanaldia egingo dira Portaleko areto nagusian, 18:30etik aurrera. Martxoaren 8tik 20ra bitartean, Juan San Martin Liburutegiak antolatutako "Itsaspeko bihotzak" areto literarioan, haur literatura-ren bitartez genero berdintasunaren gaia lantzeko ekimena garatuko dute.



Hilabete guztia hartuko duen egitaraua bete prestatu dute Emakumeen Mahaikoek.



NALUA gazte feministen taldea aurkezteko

Martxoko emakumeen egitarauaren barruan NALUAko gazte feministek taldea modu ofizialean aurkeztuko dute herriaren aurrean. Horretarako, hilaren 18an, arratsaldeko 18:30ean, urte betez egiten aritu diren "11 emakume, 11 bizipen, borroka 1" dokumentala proiektatuko dute Portalean. Gainera, Soroluzeko Korner Morea talde feministaren eta Eibarko beste hainbat emakumeren kolaborazioa ere izango dute aurkezpenean.

Nalua talde feminista duela urte bi inguru sortu zuten Eibarko emakume gazteek. "Aurretik martxan zegoen **Atakapa** talde feminista indarra galtzen hasi eta desegin zen momentuan, hutsune handia somatu genuen feministek. Horregatik herri mailako deialdia egitea erabaki genuen eta hainbat emakume elkartu ginen, talde indartsu bat eratzeko asmoarekin".

Hastapenak ez dira inoiz errazak izaten eta Nalua sortu aurretik zalantza ugari aurre egin behar izan ziotela azaldu digute: "Hasieran ez genekien nola antolatuko ginen, ezta zeintzuk izango ziren gure eginkizun edo helburuak ere". Baina poliki-poliki, eta hainbat bilera luzeri esker, taldearen nortasunaren eta egikarituko zuten politikaren inguruko erabakiak hartzen hasi ziren. Hala ere, prozesu "neketua" izan zen: "Izan ere, gure

artean emakume desberdinak elkartu ginen eta bakoitzak gaierikiko bere ikuspuntua zeukan. Baina, azkenean, gure arteko adostasuna lortu genuen".

Puntu horretara ailegatuta, hurrengo erronkari heldu zioten: herritarren aurrean euren burua ezagutzera eman nahi zuten eta, aurkezpen hori ahalik eta modurik egokienean nola egin pentsatzen hasita, horretarako ikus-entzunezkoa egitea bururatu zitzaien: "Eibarren bizidena desberdintasun egoera salatzeke eta publikoari erakusteko profil desberdinak dituzten hainbat emakumeren bizipen, arazo eta egoerak bideo labur batean jasotzea otu zitzaigun. Ideia horri tira eginez, ostalari-tzako langileak, kirolariak, ginekologoa, etorkinak, mugimendu feministan ibilitakoak, eta beste kolektibo eta norbanako batzuekin kontaktatzea lortu genuen eta, horiei elkarriketak

egiten hasi ginenean, Eibarko emakumeek esateko asko zutela eta, gainera, kontatzen zutenak balio handia zuela konturatu ginen". Hori ikusita, hasierako bideo laburraren ideia berehala baztertzea erabaki zuten, emakumeen kontakizunari denbora gehiago eskaintzeko asmoz: "Eibartar guztiontzako adierazpen eta kontakizun baliagarriak eta interesgarriak direla uste dugu eta, horregatik, horiek jendeari erakusteko beharra sentitu genuen".

Nalua kideen berbetan, "Eibarko emakumeek egoeraren lekukotasuna emateak Naluaren sorrerarako arazoia modu ezin hobean azaltzen du. Izan ere, Eibarko egoera emakume desberdinek deskribatzeak argi lagatzen du hutsune bat somatzen dutela eta benetan badagoela talde feminista gazte baten beharra". Dokumentalean, beraz, premia hori nabarmenduta, Naluako kideek hartzen dute hitza eta, besteak beste, taldearen jarduteko moduez eta dituzten helburuez egiten dute berba.

Lanari "11 emakume, 11 bizipen, borroka 1" izenburua ipini diote, "emakumeen egoera ezberdinei borroka beraz, hau da, feminismoaren bidez egi-



FEMINISMO HITZARI GORROTOA

Feminismo berbaren definizioak horrela dio: "Helburu bezala emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna duen mugimendu sozial, politikoa eta ekonomikoa. Emakumeen gain gizonek duten menperatzeko gaitasuna eta biolentzia zalantzan jartzen ditu eta baita generoa oinarri hartuta bereizten diren rolen esleipena ere".

Ez zaitezte nahastu. Feminismoak berdintasuna du helburu, ez da beraz matxismoarekin parekatu behar. Ez da gizonen kontrako mugimendu bat, baizik eta emakumeen aldeko mugimendu bat, emakumeak libre nahi dituen mugimendu bat. Gorroto handia diote ezjakinek hitz honi eta inolako arazorik gabe esaten dute eurak ez direla feministak, "igualitaristak" baizik. Ausartu egiten dira hori esaten, feminista izatea zer den ez dakiten arren. Beldurra diote emakumeok menperatuta eta zapalduta gauden egoera honetatik irteari. Beldurra diote beldurrik ez duten emakumeei, borroka egiteen duten emakumeei.

Ez gaude berdintasun egoera batean. Emakumeok beldurra sentitzen dugu kalean, badakigulako bortxatuak izan gaitzkeela, emakumeok, oraindik ere, gutxiago kobratzen dugu gizonen aldean, lanpostu bera eduki arren, emakumeok beti izango ditugu baldintza okerragoak kirol munduan, emakumeok gizonen menpe egon gara neolitikotik. Emakumea izan da gizakiaren lehenbiziko jabetza. Eta guk, feministok ez dugu patriarkatuaren ordezkariak matriarkatu bat ezartzea nahi, ez dugu nahi gizona gizon izate hutsagatik zapaltzea, patriarkatuak gurekin egiten duen bezala. Guk berdintasuna nahi dugu. Guk kalean eta etxean beldur gabe bizitzea nahi dugu, zapalduak izan gabe, erailak izan gabe, gizonen eskubide berberak edukiz.

Gizonek eurek dituzten pribilegioez konturatu behar dira eta autokritika egin, gaiari pare bat buelta eman. Eta denok gaiari pare bat buelta emateko, Simone de Beauvoir-en esaldi bat gogora ekarri nahi izan dugu: "Zapaltzailea ez litzateke hain indartsua izango zapalduen artean konplizeak ez balitu".

NALUA EIBARKO FEMINISTAK

ten zaiela aurre" adierazteko. Dokumentala Nalua taldea herri osoaren aurrean aurkezteko erabiliko dute, baina proiektuari laguntzeko aurkezpen ekitaldian beste ezusteko batzuk egongo direla aurreratu digute: "Korner Morea Soralezeko talde feministaren kolaborazioa izango dugu, "Mantazpitik" poesia-musikatu saioa eskainiko dute eta kolaboratu nahi izan

duten emakumeen eskutik beste ezusteko batzuk ere egongo dira".

Hilaren 18koa aurkezpen ofiziala izango dan arren, herriko feminista gazteak ez dira geldirik egon eta honezkero hainbat jardueratan ikusteko aukera izan dugu: "Kalean presentzia bermatzeaz eta emakumeen aurkako edozein eraso salatzeaz arduratu gara. Martxoak 8an,


azaroaren 25an, San Balentin egunean edo San Andresetan gertatu zen eraso sexistak salatzeak kalera irten ginen. Horrez gain, San Juanetarako 'Erasoen

aurkako protokoloa' prestatu genuen eta ia zokoa azaroan 'Woman In Black' izenburuko antolatua genuen, beste gauza batzuen artean".

NOLAKO HERRIA DAUKAGU?

Nalua taldekoek galdera horri erantzuteko hausnarketa egin dute eta, diotenez, "ziur gaude jendeak San Andres jaietan gertatutako bortxaketa saiakeraren eta orain dela egun gutxi Txontan izandako erasoaren berri izango duela. Baina Eibarren EGUNERO egoten dira eraso sexistak: kalean lasai asko ibiltzen ahalegintzen garenean, beti dago gure gorputzaren, ipurdiaren, eskotearen... inguruan bere iritzia (guk eskatu gabe) ematen digun edo gurekin zer egitea gustatuko litzaiokeen esaten digun gizonen bat. Batzuk

ukitzen ere ausartzen dira. Baina, antza denez, horrelakoak 'piropoak' dira eta gu 'pozik' sentitu beharko ginatete norbaitek gauza 'politik' esaten dizkigulako. Sare sozialetan ere ia egunero aurkitzen ditugu emakumeak iraintzen dituzten eibartarren publikazioak eta inoiz bortxaketa desioa adierazten duten testuak ere irakurri ditugu. Ipuruako harmailetan kantatzen dituenetako batzuk, parrandetako babosoak, emakumeak sukaldara bidaltzen dituzten txisteak... Horiek guztiak aldatzeko lan asko dago egiteke".



MIRO PEREZ LARIN

(II. urteurrena: 2014-III-6)

*"Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik"*

Monica Miguez (Medicus Mundi Gipuzkoa)

«Lehiaketak Perura bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen du»

Bosgarren aldiz, Euskadiko Medicus Mundi osatzen duten hiru elkarteek "Gazteak Hegoaren Bila" lehiaketan parte hartzera animatu nahi dituzte gazte guztiak. Lehiaketan parte hartzen dutenek egin beharko dituzten proben bitartez gizartean dauden berdintasun ezak eta bidegabekeria sozialen inguruan gogoeta kritikoa eragitea nahi dute antolatzaileek eta, horrekin batera, herrialde txirotuetako errealitatea nahiz beste arazo global batzuk hobeto ezagutaraztea.



- Nork hartu dezake parte lehiaketan?

Aurrekoetan bezala, Medicus Mundik talde-lana sustatu nahi du. Horregatik, EAEn bizi, ikasi edo lan egiten duten 19 eta 30 urte bitarteko gazteek lehiaketan parte hartzeko lau kidez osatutako taldeak eratu beharko dituzte eta, horrez gain, martxoaren 18rako www.jovenesbuscadelsur.org helbidean izena eman. Bestalde, sarean lan egiteko asmoari jarraituta, probak taxutzeko beste talde eta elkarte batzuen laguntza izango du antolakuntzak, Bizkaiko Bertsozale Elkartea, Harresiak Apurtuz edo Donostiako Erizaintza Eskola tartean direla.

- Eta nolakoa izango da jokoa?

Lau proba izango ditu eta horiek ere interneteko webgune horretan argitaratuko dira apirilaren 1ean, 15ean eta 29an, hurrenez hurren. Azkena maiatzaren 21ean egingo da, Gasteizen, eta horretan parte hartzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta lehiakideei punturik ez eman. Epai-mahai batek lanen edukia, aur-

kezpena, originaltasuna eta sormena begiratu eta baloratu ondoren, bi taldek sari bana eskuratuko dute.

- Eta nolako sariak banatuko dituzue?

Lehen saria lortzen duen taldea Perura joango da bidaian eta Medicus Mundik han garatzen diharduen lankidetzalana bertatik bertara ezagutzeko aukera izango du. Eta bigarren sailkatzen den taldeak, berriz, bidaiatzeko 2.600 euroko diru-laguntza jasoko du, Espainian elkartasunarekin eta lankidetzarekin zerikusia duen esperientziaren bat ezagutzera joateko. Horregatik, lehiaketan parte hartzera animatu nahi ditut gazte guztiak. Taldeka egindako jolasa da eta, hainbat proba gainditu eta gero, lagunekin batera Perura bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen zaizkie. Beraz, izena eman eta zuen sormen eta adimen ahalmena probatzeko, beste herrialdeetako errealitatea ezagutzeko eta Osasunerako Eskubidearen defentsaren inguruan sentsibilizatzeko aukera izango duzue-eta!

www.etakitto.eus

ALBISTEAK KULTUR-AGENDA
KIROL-AGENDA BERBETAN

Belgikako ikasleak Armeria Eskolara bisitan

Belgikako Tihh Hasselt ikastetxeko mekanika eta elektrizitate arloko ikasle eta irakasle talde bat aste honetan Eibarren bisitan dago, Armeria Eskolako ikastetxe horrekin duen kolaborazio-proiektuari esker eta Europako "Working in your neighbourhood: It's Europe" programaren testuinguruan. Ikasleek hemen emango dituzten egunetan hidraulika, pneumatika, Eplan,



VDF eta TIA Portal-klaseak jasoko dituzte. Klase horiek ingelesez emango dizkiete Armeria Eskolako ikasgela eta tailerretan. Horrekin batera, aste bitan Eibar eta inguruko hainbat enpresatan praktikak egiteko aukera izango dute eta, egonaldia aprobetxatuta, olatuen energia ustiatzeko Mutrikun dagoen instalazioa ikusterera joango dira eta Gaindu eta Etxe-Tar enpresak ere bertatik bertara ezagutzera joango dira.

ROBOTIKA IKASTAROETAN izena emateko epea zabalik

Aurtengo Ibilbide Teknologikoa programaren barruan Lehen Hezkuntzako ikasleentzat udalak antolatu dituen "Lego education WeDo" eta "Lego Mindstorms EV3" ikastaroen bigarren

ediziorako izen-ematea zabalik dago eta interesa dutenek martxoaren 11ra arte izango dute horretarako aukera, Pegoran.

"Lego education WeDo" plataformako ikastaroa LH-ko 3. eta 4. mailako ikasleentzat izango da eta izena ematen duten gazteen aitak edo amak ere parte hartu beharko du. Txanda biren artean aukeratu daiteke: lehen txandan klaseak martxoaren 29, 30 eta 31n, 16:00etatik

18:00etara izango dira eta bigarrenean, berriz, apirilaren 9, 16 eta 23an (zapatuak), 16:00etatik 18:00etara. Eta "Lego Mindstorms EV3" LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleentzat izango da eta honetan ere bi txanda daude aukeran: lehen martxoaren 29, 30 eta 31n, 18:00etatik 20:00etara eta bigarren apirilaren 9, 16 eta 23an (zapatuak), 18:00etatik 20:00etara. Kasu bietan tailerrak Juan San Martin liburutegiko haurren atalean egingo dira.



Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko
JANTZIAK

Kopina moda
ume eta gazte

f kopinamoda
San Agustin, 3
943 204 181

ONDO EGINDAKO LANA programaren bosgarren saioa modu berezian amaitu zen, Joan Mari Torrealdai solasaldiko protagonista nagusiak Mikel Larrañagaren eskutik jasotako bandoa irakurri zuenean. Interes handia piztu zuen Armeria Eskolak sortutako programaren saioak eta oraingoan oparia ere jaso zuen gonbidatu batek, 1982an Larrañaga alkate zela kaleratutako bandoaren erreproduktzioa hain zuzen. Euskeraren alde egindako ondo merezitako errekonozimendua jaso zuen Torrealdai; eta zein egokiago bere burua haren zordunen artean kokatu zuen Juan Jose Ibarretxe baino.



“Zuk egindako lanari esker, nire bizitza proiektua aldatu eta aberastu da”

Hitz horiekin goraiatu zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Torrealdai eta honen inguruko taldearengandik jasotakoa. Gaur egun Agirre Lehendakaria Center Columbia Unibertsitateko buru eta Euskal Herriko enbaxadore handienetakoak bigarren mailan kokatu zuen bere burua Joxe Mari Ulazia moderatzaileak zuzendutako solasaldian eta Torrealdai euskararen alde egindako lan nekazina azpimarratu zuen.

Aretoa beteta zegoela ekin zioten bi gonbidatuek Ulazia programaren zuzendariak proposatutako bi protagonisten bizitzaren errebasoari. Desberdina, argi eta garbi, baten eta bestearen kasuak. Halako batean batek bestearen berri izan arte. Ezagutu eta euren arteko konplizitatea sortzeraino.

Foruan jaiotako Torrealdaiak “Euskal Herri gris eta sufritu” du gogoan euren baserria hartu zuten soldadu italiarrak gogora ekartzean. Etxeko euskararekin eskolan hautsi zuela oroitzen du eta “seminarioak pobreen unibertsitatea” zirela agertzen digu. Aran-



Mikel Larrañaga alkate zela kaleratutako bandoa oparitu zioten Torrealdairi.

tzazura heldu zen 12 urterekin eta han aurkitzen du “nire konpromiso kulturalaren oinarria. Frankismoan hura gotorleku edo oasi modukoa izan zen: artistak izan genituen bertan, Euskaltzaindiaren bi kongresu egin ziren...”. Salbatore Mitxelenak esandakoa ekarri zuen: “Eguzkia Arantzazun dago, Euskal Herrian lainoa”. Jarraian “gure Tolosatik Okzitaniako Toulousera eta handik Parisera” egindako jautzia ekarri zuen mahaira: “Francoren zentsuratik askatasunaren errepublikara egindako bidaia izan zen. Hura Europa zen, askatasunaren espazioa. Hori iruditzen zitzaigun behintzat. Orain bai desilusioa, Europak arima galdu duela ikusita, segurtasunaren gotorleku bihurtuta”.

Jarraian Jakinen emandako 53 urteei heldu zien, moderatzaileak horretara gidatuta. Eta 42 urtetan proiektu horretako zuzendaria izanda ere, “gurea beti talde-lana izan da, komunitatean egindakoa” azpimarratu zuen. Euskara batua, AEK, UEU, Kontseilua, Huhezi... hainbat jardun gogoratzeaz gain, hor izandako joera azaldu zigun Joan Mari: “Lan guzti horiek gizarteari eskaintako zerbitzu gisa ulertzen dut eta herrigintzan integratuta”.

Juan Jose Ibarretxek, Laudion bizi izandako lehen urteak gogora ekartzean, “etxean gerrari buruz-eta ez zela hitz egiten” onartzen du eta bere lehen harremana euskararekin 1978an kokatzen du “unibertsitatean, 5. mailan nengoela. Euskalduntzen 1 izan zen nire lehen liburua”. Ordura arte galdutako munduaren jabe da baina, “esperiencia mundiala bizitzen hasi nintzelako, garrantzitsuena nire bizitzan”.

Bidean lagun izandakoak

Euskal idazle eta euskaltzainak Karlos Santamaria, Rikardo Arregi eta Martin Ugalde moduko bidelagunak izateaz harro zegoela esan zuen, “formazioz desberdinak izan arren, helburu jakin bati jarraitu ziotelako”. Elkar-en lana aipatu zuen eta, horri lotuta, Joseba Jakaren aportazioa ekarri zuen mahaira, hari esker lortutakoa nabarmenduz eta transmisioa egiten zelan asmatu zuten goraiatuta: “Lan sozialak Fundazioa sortzea ekarri zuen eta horrek gizarteari euren hoberena eskaintzea euskal ondarea sortze bidean”. Hemengo bestelako enpresek gauza bera ez egiteaz damu zen: “Irabazitako dirua beti berrinbertitu balitz, orain beste egoera batean egongo ginatke”.

Ibarretxek, bestalde, Ekonomia ikasketak amaituta, “Errusiako enpresa batean lanean” hasi zela kontatu zigun, “ingelesa euskara baino lehenago ikasi” izana nabarmenduz. “Gero, denboraren poderioz konturatu naiz zer den euskal kultura, Joan Mari eta halakoei esker. Horrekin lotuta, asko gure ziborriari begiratzearen aldekoak diren moduan, nik aldiz beharrezkoa ikusten dut Euskal Herria eta euskara munduko plazan kokatzea. Gehiago irten beharko genuke kanpora”.

Azken hau lehendakari zela hasi ziren aurrez-aurreko harremana izaten. Aurretik, baina, Torrealdai egoera “tenkatua” bizi izan zuen hasierako Eusko Jaurlaritzarekin. “Ez zen aintzat hartu gure lana eta guk esperientzia falta geneukan instituzioekiko. Horrela, euskalgintza eta instituzioak bizkar emanda egon ziren; konplizitate falta zegoen, bertan genituen lagunekin ere. Seguru



joan mari torrealdai
"Egunkaria Euskal Herria egituratzeko ariketa praktikoa izan da. Berandu, baina sortu behar zen tokian sortu zen, gizarte zibiletik."

juan jose ibarretxe
"Pena izan zen instituzio eta euskalgintza aldetik diskurtso bera ez ematea eta, hori aprobetxatuz, eraso handiak egin zitzaizkion EBPN-ri"



nago elkarrri eskua emanda urrutirako helduko ginela. Dena dela, ikusita euskera borondatezko eta erdara beharrezko egin dutenen bidetik jo dugula, onartu beharra dugu legea alde izanda ere, ez dugula jakin hori azkeneraino eramaten", esan zuen. Biek gogoratzen dute Ibarretxe lehendakari zela abiatu zela EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) eta euskeraren aldeko jarrera aktiboagoa hartu zuela Jaurilaritzak.

Egunkariaren sorrera

1990eko hamarkadak "markatu zuen" Joan Mariren bizitza eta hor Egunkariaren sorrerak garrantzi handia izan zuen. "Orduan ere publikoa/pribatua eztabaidaren erdian, gurea egitasmoa zen moduan, aurrean genuena asmoa besterik ez zen. Nire ustetan berandu, baina atera behar zen lekuan sortu zen Egunkaria, gizarte zibiletik. Tentsio politikotik aparte, kultura mundutik ekin zitzaion proiektuari. Ez zela unea, ez zela enpresa egokia, ez zegoela hartzailerik... Apostu asko irabazi ziren eta harro egoteko moduan gaude". Horrekin batera, Torrealdairen ustetan, "Euskal Herria egituratzeko ariketa praktikoa izan da".

Egunkariak 13 urte egin zituen "Espainian agintzen zutenek proiektu osoaren bila" joan zirenerako. "Luma batzuk pistolek baino eragin gehiago zutela sinistuta, Egunkariaren, Elkar-en eta Eusko Jaurilaritzaren inguruan galdegin zidaten atxilotu eta torturatu nindutenean", dio. Jaurilaritzaren diru-laguntzak, Egunkaria tarteko, ETArek eskuetara zihoa-zela, azken buruan. Juan Jose Ibarretxe iritzi berekoa azaldu zen eta Aznarrekin izandako tirabirak ekarri zituen gogora: "Pauso bat aurrera egiteko eskatu nionean, berak trankil egoteko esan zidan, 'la opinión pública española, debidamente alimentada, puede cambiar en 48 horas' gaineratuz. Hor ikusten da herriaren iritzia dion errespetua!".

2010ean kargu guztietatik absolbitu zuten Torrealdai, "baina ez barkamenik, ezta kalte-ordainik. Zer sentituko dut ba? Inpotentzia, nahi dutena egiten dutelako; eta inpunitate sentsazioa, ondorioz ez dutelako izango". Barruan zuen korapiloa ezin askatu eta bost urtetara aitortu zuen torturatu zutela: "Baionan egindako nazioarteko kongresu batean salatu nuen".

Idazleak ETB eta euskararen inguruan egin zuen tesina eta euskal telebistak bere

funtzioa ez duela bete dio. "Esaten dutenean hemen bi komunitate daudela eta elkarrri bizkarra ematen diogula, hori ez da egia: guk parte hartzen dugu euren munduan, eurak ez gurean. Andu Lertxundik Raul Guerra Garridori esan zion moduan: 'Nik zure literatura ezagutzen dut, zuk ez nire'". Ibarretxek gogotik heldu zion gaiari eta, Gemma Zabaletak bezala, berak ere mundu bat deskubritu duela aitortu zuen: "Nire bizitzaren proiektua aldatu du euskarak. Nire alabarekin 19 urtean erdaraz egin eta gero, azken 20tan euskeraz egin dugu".

Euskeraren 7.000 urteko historiari heldu zion lehendakariak etorkizunari begira "optimista izateko. Hori bai: talde lanari heldu behar diogu eta 'insistentzialistak' izan". Torrealdai ez du ikuspuntu bera: "Nik pesimista aktibotzat dut nire burua. Maratoi proba baten aurrean bagina bezala ikusi behar dugu gure egoera, helmuga ikusten ez dugula. Barne kohesioa behar dugu, gure lana positibizatzeke". Biak bat etorri ziren, ordea, kultura unibertsalaren alde daudenak kritikatzeko: "Hori aberasgarria da? 5.000 hizkuntza izatetik mende amaieran 500 geratu direla esan eta lasai geratuta?".




Jende askok jarraitu zuen Armeria Eskolan martitzen eguerdian antolatutako solasaldia.

Banda eta orfeoia gure herrixan

Eibarren lehelengo Musika Bandaren aztarnak 1831 urtera erango gaitue. Sasoi hartan banda bat sortzeko asmua edo osatu barrixa izango zana-erentzat instrumental barrixa erostia erabagi eben-eta. Urte hartako ekaiñaren 19xan Udalak lau urtian 4.000 erreal emotia erabagi eban *"herriko konpañia filarmonikak bihar dittuan instrumentuak erosi deixan"*. Hurrengo urtian, 1832xan, beste 2.000 erreal gehixago emon zittuan.

1867rako desagertuta eguan banda hori eta barrixa sortzeko asmua agertu eben. Urte horretako martxuaren 24ko saiuan, herriko biztanle askok siñatutako memoria aurkeztu zetsen Udalarari, *"beste herri askotan dagan musika martzial erakua Eibarren be osatzia erregutuz"*.

1884an **"La Marcial"** ospetsua osatu zan, *"25 ejekuntatiekin"*. Apal-apal bere lanian hasi zan Bandak epe motzian garaipen haundixak lortu zittuan eta, aittagarrixen artian, Donostian 1902xan lortutakua dogu: lehen sari birekin batera, ohorezkua eta beste bigarren sari bat be ekarri ebelako honuntza. Ildefonso Irusta izan eban zuzendarixa eta 1922xan laga zetsan izen horrekin urtetziari. Irustari jarraitu zetsen, udal Bandaren zuzendari moduan, azpizuzendari izan zan Jacinto Martinezek eta, 1924tik aurrera, Aguztin Zuloagak. Azken horrek, Udal Bandia zuzentziaz gain, Orquesta Breton eta **Orquesta Rialto** zuzentzen zittuan. **"La Breton"** 1913an sortu eben eta Angel Garate **"Beltxi"** izan zan lehelengo zuzendarixa. Gerra zibilla hasi au-



Trena 1887xan martxan hasi zanetik, Estaziñoko geltokixa izaten zan gure herrira zetozenen harreragunia. Agintarixak eta herritarrak lagunduta, han izaten zan La Marcial Musika Banda.

rretik, baeguazen beste bi banda Eibarren: Union Musical Eibaresa izenekua, Rafael Cañon zuzendari zekana eta, bestia, **"La Romeral"** izeneko herri-banda, Antonio Enbeita **"Txapel"**-ek gidatzen ebana. Agustin Zuloaga hil zanian, 1932ko apirillaren 30ian, haren gorputzaren kondukziñua egin eben hurrengo egunian, maiatzaren 1ian, musikuak lagunduta. Eibar Errepublikaren lehen urteurrenaren ospakizunetan eguan sartuta guztiz eta, hori ospatzeko, Bandaren musikuak arratsaldez eta gabaz jotzia erabagi eben, baiña hor ixa apurketia sortzekotan egon ziran, bandako azpizuzendarixak eta musiko batzuk horren kontra egin ebelako. Azkenian, hildako zuzendarixari zor zetsen errespetua eta Errepublikaren anibersarixua bat egitteko, musikuak paisanoz jantzitta jo eben.

XX. mendiaren lehen hamarkadaren amaieran denbora gutxi iraungo eban beste banda bat sortu zan. **"Santa Zezilia"** deitzen

zan eta Circulo Conservadorekua zan, Crispulo Gisasola **"Crispulin"** zuzendarixa zala.

Udal Bandaren barruan zatiketia egon zan 1949ko iraillaren 1ian, oporretatik bueltan. Jacinto Zuloaga zuzendarixarekin hasarretuta, Bandako musiko askok taldia laga eta beste bat sortu eben, Juan Ugalde maisuaren aginduetara. Herritarrak motia ipiñi zetsan 11 kidiak osatutako taldiari (**"Los Rebeldes"**), geruago beste zortzi kide hartu baiño lehen. Hórrek 19 musikuok antxiñako Bar Javierren egitten eben entsaiuak eta **"La Lira"** izen artistikua hartu eben. Ibilbide politta egin eta gero, 1959xan amaittu eban ibilbidia.

Orfeoia

Jakiña, Eibarren ezin falta talde koralik! 1887xan, eta Durangotik Zumarragara juango zan trenaren inauguraziño egunera-ko bereziki osatu zan orfeoia. Helburu bakarra ekan taldiak: lehelengo trena heltzen zanian, *"himno alegorikua eta bestelako konposiziño bat edo beste abestia"*. Himnua Tolosatik Eibarrera entsaiuak zuzentzera birritan etorri zan Gorriti maisuarena zan. 1901eko urtarrillaren 30ian beste koral bat osatu zan, **"Orfeon Eibarres"** izenekua, Crispulo Gisasolak zuzendutako 70 kiderekin. Eta 1906ko uztaillaren 1ian beste abesbatz bat osatu zan, 72 gizonezko osatutakua eta **"Orfeon Vasco-Fuerista"** izenekua. Lau urtetan iraun eban, Juan de Gisasola zuzendarixa zala.



Armeruen konparsia, tartian "La Lira" bandan jotzen eben musikuekin.

Juniorren lasterketa ederra Udaberri Sarian

Domeka goizean jokaturako Udaberri Sariaren 38. edizioan (Abascal Oroigarriaren 37.a) joko bikaina erakutsi zuen parte hartu zuen junior mailako tropelak. Lasterketa, gainera, azken metrotan erabaki zen eta horko esprintean Ampoko Iker Imaz izan zen nagusi. Denbora berean sailkatu ziren irabazlearen atzetik Dorian Foulon (Urte Velo 64) eta Ander Amonarriz (Andoaingo) podiuma osatzeko. Taldekako sailkapenean Limousin izan zen onena (talde horretakoak ziren Unai Iribar bosgarrena eta Aitor Zurdo hamargarrena), mendiko saria helmugan seigarrena izan zen Xabier Azparrenek irabazi zuen, lehiakortasun saria Foulon bigarren sailkatuak eta Imano Alvarez (Ciclos Iturriaga) izan zen Debabarrenako onena. Eibarko Txirrindulari Elkarteak denboraldi honetan antolatzen duen lehenengo proba izan zen Pneumax-ek babestutakoa.



Abascal Oroigarriaren podiuma, maila guztietako irabazleekin. Aurrez lasterketa gogorrari egin behar izan zioten aurre.

Ereñon eta Asteasun dute hitzordua Deporreko txirrindulariek

Aurreko zapatuan hasi zen txirrindularitza denboraldia elite-sub23 mailan eta, Zumaian jokaturako proban, Eibarko Klub Deportiboko Eibar Energia Hiria - Debabarrena taldeak lau ordezkari izan zituen eu-

riak eta haizeak ondo kaltetuta helmugaratu zen tropel txikian. Aldro taldeko Julen Amarika eta Lizarteko Jaime Castrilo segundo batzuk aurretik helmugaratu ziren eta, atzetik, Víctor Cordon ermuarra izan

zen Eibarko taldearen ordezkari onena; berearekin helmugaratu ziren Pello eta Txomin Osoro eta Iker Goikoetxea. Hurrengo hitzorduak bihar Ereñon eta etzi Asteasun ditu Eibar Energia Hiriak.



Sagardotegia mendizaleen sari

Aurreko zapatuan urtero egiten duen sagardotegian amaitzeko ibilaldia egin zuen Klub Deportiboko mendi batzordeak. Hori bai, Andoainen hasi eta Hernanin amaitu zuten ibilbidea aldatu beharrean izan ziren, eguraldiak hala behartuta. Laburrago (11 km.) eta, Adarratik pasatu gabe, Butxanara joan zen 40 laguneko taldea, bidean Santa Barbara ere bisitatu. Bidean jasandako haize eta euriaz ahazteko, sagardotegian gozatzeko aukera izan zuten mendizaleek: "Giro paregabea zegoen eta jendez topera".

Lehenengo mailako taldearen garaipena xakean

Aurreko asteburuan jokaturako zortzigarren jardunaldian, Eibar B taldeak 1'5-2'5 irabazi zion Gros C-ri Donostian, mailari eutsi nahi diola erakutsiz: Mikel Larreategi eta Jose Antonio Garridok irabazi egin zituzten euren partidak, Xabier Beorlegik berdindu eta Emilio Freirek galdu. Sailkapenean azkenurrekoa da taldea, aurreko taldea puntu erdira egonik eta hurrengo puntu eta erdira -azken hori, Elgoibar, bisitari izango dute Deportiboan bihar-. Maila goreneko taldeak, bestalde, galdu egin zuen sailkapenean aurkari zuzena duen Hondarribi-Marlaxkarekin; horrela, sailkapenean atzera egin du laugarren posturaino, baina bigarren sailkatua puntu bakarrera besterik ez du. Bihar 9. jardunaldiari egingo diote aurre Deporreko taldeek, biek ere Eibarren, 16:00etan hasiko diren neurketetan: maila goreneko taldeak Azkoitiko Anaitasuna Kakute A taldea hartuko du eta 1. mailakoak, lehen esan moduan, Elgoibar.



KORO ANGOITIA GOIKOETXEA

(1. urteurrena: 2015-III-3)

*"Beti izango zaitugu gure bihotzetan.
ASKO MAITE ZAITUGU"*

ETXEKOEK

Bartzelona ahalguztiduna izango da etzi Ipuruan (16:00)

Marka guztiak apurtzen diharduen Luis Enriqueren taldeak bisitatuko du Ipurua domeka arratsaldean Eibarrendako ere garrantzi handikoa den partiduan. Lillori txartel gorria atera zioten Sevillan herenegun jokaturako partiduan eta kanpoan geratuko da, zigortuta. Bestalde, Jota Peleteirok ere paso egin beharko du, min hartuta baitago hilabete baterako-edo. Bestalde, Sevillan jokaturako neurketan maila ona eskaini zuen Eibarrek, Las Palmasekin Ipuruan bezala, 1-0 galdu bazuen ere.

Domekakoaren ondoren, bi irteera izango dituzte aurrean Mendilibarren mutilek, Madrilera biak ere: Vallecasera lehenengo (hilaren 12an, zapatuan, 22:05ean TVE1-ek zaballean eskainiko duena) eta Getaferra bigarrena. Atzerago badaude ere, eibartarren aurkari zuzenak izan daitezke talde biak eta hortik jokoan dauden puntuen garrantzia. Vallecaseko partidurako, gainera, Premier Bidaiek-ek Madrilera joateko aukera bi eskaintzen ditu: egun berean, goizeko 07:30ean irtenda eta partidu amaie-



Eibarrek lan zaila izango du munduko foballari onenaren taldea aurrean izatean.

ran bueltatuta, 35 eurotan; bigarrenen, autobusak egun bereko 12:30ean irtengo du eta itzuli hurrengo egunean, domekan, 16:00etan, lau izarretako hotel batean gaua pa-

satu eta gero. Prezioa 90 euro da eta izena emateko epea astelehenean amaituko da. Hori bai: gutxienez 50 laguneko taldea osatu beharko da modalitate batean zein bestean.



Omenaldia Eibarko jokalaria-ohiei

Eibar goi-goian badago ere, horraino heltzeko beste askoren lana errekonozitu behar dela" zioen Joseba Txabarri Ipur sagardotegiko arduradunak aurreko astean taldeko hainbat jokalaria-ohiei egindako omenaldian. Txotx denboraldi berria hasteko egindako ekitaldian, Migel Zapiain sagardogileak eta Txabarri gonbidatuta, hainbat jokalaria berterano izan ziren beste guztiak ordezkatzeko. Argazkian Gomez de Segura, Artetxe, Bixente, Arriola eta Xepe Gallastegi daude, beste batzuen artean.

Urko 14 Alkideba goruntza

Gipuzkoako Preferente mailan jokatzeko duen foball taldeak garaipen handia eskuratu zuen aurreko asteburuan igotzeko borrokan diharduen Urolaren aurkako partiduan. Garaipen hori hirugarrena dute jarraian eibartarrek eta, horri esker, azken postuetatik ihes egi-

ten hasi dira. Gainera, azpeitiarren aurkako neurketa aldapa gora jarri zitzaizen Ander Trebiñoren mutilei Urolaren golekin, baina partidu guztia euripean jokatu zen arren, indartsu heldu ziren eibartarrak amaierara eta, bi golekin, emaitzari buelta ematea lortu zuten.

Iñaki Osoro Deporreko presidente

Aurreko barixakuan Klub Deportiboko urteko batzarrean zuzendaritza berritu zen eta Iñaki Osorok hartu zuen Mikel Larreategiren tokia presidente karguan (10 urte egin ditu azken honek hor). Virginia Arakistain da diruzaina eta Jose Ramon Badiola idazkaria. Bestalde, gaur egun 2.500 bazkide dituen klubeko batzordekideak honakoak dira: Bakarne Elejal-


de (argazkilaritza), Jose Valderrey (artxiboa), Igor Amorrosta (atletismoa), Oier Araolaza (Kezka dantza taldea), Arrate Zamakola (eskia), Mariano Luke (kultura), Iñigo Arizaga (espeleologia), Egoitz Elduaian (mendia), Luis Narbaiza (pilota), Asier Eraso (urpeko ekintzak), Juanjo Sebastian (txirrindularitza), Jon Arana (xakea) eta Alberto Ferreiro (squash).

CARMELO PAGUEY ABAITUA

1. urteurrena: 2015/03/01

"Betiko izango zara gure oroimenean, BETIKO GUREKIN".

ZURE FAMILIA



Gipuzkoako duatloi txapelketa jokoan 25. Eibarko Duatloian

Bihar 16:45ean Eibarko kaleetan hasiko den proban Gipuzkoako duatloi sprint txapelketa izango da jokoan. Lasterketaren 25. edizioa da aurtengoa eta lasterkariak bost kilometro egingo dituzte korrika, 19 bizikleta ganean eta, amaitzeko, beste kilometro bi eta erdi antxixiketan helmugara iritsi aurretik. Eibarko Euskal Herriko duatloi zirkuitorako hirugarren proba puntuagarria izango da eta goian aipatutako orduan emakumezkoak irtengo dira eta handik hiru minutura, 16:48an, gizonezkoak. Lasterketaren muina Untzaga plazan izango da, hor egongo baitira bai helmuga eta baita boxeak ere. Oinezko lasterketak herriko kaleetatik egingo dira (lehen atalean

hiru itzuli emanez eta azkenekoan itzuli barrara) eta bizikleta saioan herria inguratzen duen bariantea zeharkatuko dute. Partehartzaileei begira, probak 216 kirolarietan jarri du kupoa eta, sariekin batera, material zozketa egingo da amaieran.

Euskadiko eta Gipuzkoako Triatloi Federazioekin batera, proba hori antolatzen jardun duen Delteco Eibar Triatloi Taldeak bi ordezkari izan zituen aurreko asteburuan Mungian jokatu zen proban (bakarra izan zen, eguraldi txarrak beste guztiak bertan behera laga zituen). Mungikoan ere bizikleta zatia kendu behar izan zuten eta Gonzalo Saez 16.a izan zen eta Juanjo Romero 35.a.



Detailak txikiak erabaki zuten Somos-ek galtzea

7-6 eta 17-16 irabazten joan baziren ere, Fernando Fernandezek mutilek azken unean amore eman behar izan zuten Tolosa lideraren aurka eta, porrot horrekin, bigarren postua lau puntura dute orain. Igoerako promozioa jokatzeko aukerak ere murriztu egin zaizkio proportzio horretan: Tolosa lider sendoa alde batera lagata, aurretik dituen Trapagaran, Uharteko edo Anaitasunaren porrotoren zain egon behar dira Somos Eibarkoak. Hori bai, taldeak Tolosaren aurka jokatu zuen moduan jarraituz gero, izango ditu bere aukerak,

zapatuan lporuan 500 lagunetik gora bildu zirenek ondo gozatu baitzuten han ikusitakoaz.

Bestalde, Urnieta aurkari izan zuten Eibar Eskubaloiko bi ordezkari emaitza desberdinak lortu zituzten: emakumezkoen Euskadiko txapelketan, Avia Eibar Eskubaloiak 24-23 galdu zuen; eta Gipuzkoako 1. mailako partiduan, Haritza 27-30 nagusitu zen. Eta eibartarren arteko neurketa polita ikusteko aukera izan zen alebin mailako errendimendu ligako partiduan: hor Eibar Eskubaloiko B taldea 17-10 nagusitu zitzaion A taldeari, giro bikainean.



Haurtzako mendi irteerak berri martxan

Klub Deportiboak haur eta gurasoentzako mendi irteerak berreskuratzeko ahaleginean, bihar ekingo dio umeen mendizaletasuna sustatzeko egitasmo horri. Lehenengo irteera hori Urkiola mendira izango da, ibilbide erraza, paisaia zoragarria eta ume txikiak egiteko modukoa dela aipatzen. Elkartzeko hitzordua Untzaga plazan ezarri dute, goizeko 09:00etan eta gero, "gure autoetan hara heldu ondoren", Urkiolako basilizan 10:00etan berriro ere biltzeko. Informazio gehiagorako Klub Deportiboko Mendi Taldera jo dezakezue edo 943-201904 telefono zenbakira.



EMILIO URIZAR GOXENCIA
1. urteurrena (2015/III/3)

*Jadanik urtebete zu gabe,
baina zeu zara gure
oroitzapenen zutabe.*

Maite zaitugu

ETXEKOEK



ARANTZA LASA
(historialaria)

- Zeren gainean jardungo duzu hitzaldian?

Emakume nobleak, baserriarrak, maiestrak, errotariak, serorak, linua landu eta saltzen zutenak, arrantzaleak, merkataria, patronak... Debarreneko emakumeak aspalditik daude lanean -IX. mendekoak dira ditugun lehen erreferentziak- eta betidanik izan dute zer kontatu. Beraz, Debarreneko emakumeak izango ditugu hizpide, XV. mendetik hasita.

Debarreneko emakumeek era askotako lanak egin dituzte, eta hauek desberdinak izan dira bizi izan diren lekuaren arabera. XVI. mendea oso garrantzitsua izan zen. Sasoi hartan, Deban oso garrantzitsua izan

“Debarreneko emakumeak aspalditik daude biharrean”

Emakumearen Egunarekin bat eginez, Arantza Lasa historialariaren hitzaldia antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek “Debarreneko emakumeak XV. mendetik aurrera” izenburupean. Arantzak XVI. mendeko emakumeen bizimodua aztertu eta horren gaineko tesia egin zuen 2005ean, baina ordutik hona, horrenbeste gustatzen zaion gaia jorratzen jarraitu du; 2011n, esaterako, Eibarko emakumeen historiari buruzko liburua argitaratu zuen. **Hitzaldia martxoaren 8an izango da, martitzena, arratsaldeko 19:00etan ...eta kitto! Euskara Elkarteko hitzaldi gelan.**

zen merkataritza eta horretan emakume asko aritu ziren; Mutriku arrantzarekin lotutako emakumeak izan ginen. Barnealdean, hiriak fundatzen direnean, emakumeak menditik bailarara doaz baina mantentzen da oraindik baserriarekin hartueman handia, lurrari oso lotuta egon dira. Gizonak Amerikara joaten hasi zirenean, merkataritza hasi zirenean edo militar moduan jarduten zutenean emakumeek etxearen ardura osoa hartzen zuten.


- Zelakoak ziren sasoi bateko Eibarko emakumeak?

Eibarko emakumeak beti izan dira aurrerakoiagoak, liberalagoa izan da Ei-

bar. Matxinadetan eta gerra Karlistetan ere azpimarratzekoa da emakumearen papera, informatzaile bezala. Serorek ere garrantzi handia izan zuten, doktrina eurek erakusten zuten. Emakume errotariak ere oso garrantzitsuak izan ziren eta labetan ere egiten zuten lan. XX. mendearen hasieran biztanlegoa pila bat handitu zen Eibarren, inguruko probintzietatik jende asko etorri zen eta emakumeek apoloak izaten zituzten etxean. Emakume alargunek egindako lana ere oso garrantzitsua izan zen eta gerra amaitzean, frankismo garaian, emakumeek janaria lortzeko egindako sekulako beharra ere aipatuko dugu.

Argazki erakusketa berriak

Martxorako argazki erakusketa berriak prestatu dituzte Klub Deportiboko Argazki Taldekoek: Juan Ignacio Aizpuruaren lanak El Ambigú kafetegian ikus daitezke, Anna Selgarenak Portalea tabernan eta Kepa Gonzalezen argazkiak, berriz, Klub Deportiboaren tabernan. Horrez gain, apirilaren 2ra arte Juan Antonio Palacios Deporreko argazkilaria "Paisaia Naturalak" erakusketa El Corte Inglesean, ekitaldi aretoan ikusteko aukera izango da, 11:00etatik 21:00etara.



Xaboia nola egin ikasten

Hamasei lagun ibili dira martitzen eta eguaztenean xaboi naturalak nola egiten diren ikasten, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako ikastaroan, Xaboi Punpuilak taldeko Agurtzanekin. Osagai ezberdinak bere azalpeni jarraituta nahastu eta gero, xaboiak moldeetan sartu eta lehortzen laga dituzte, hemendik aste batzuetara erabiltzeko prest daudenean jasotzeko.



Inauteriei buruzko saiakera berria

Edu Zabala Garagartzak (Eibar, 1958) "Inauteria, gizakia naturaren kontra", inauteriei buruzko saiakera argitaratu berri du, autoedizioz, mundu osoko inauteriak ardatz hartuta. Lanbidez euskera irakaslea eta afizioz idazlea den eibartarra aspaldian Donostian bizi da. 2004an "Inauterietan" izeneko ipuin bilduma kaleratu zuen Gero argitaletxearen bidez. Urte beretan eta argitaletxe berarekin, bere lehen eleberria "Ezka" eman zuen argitaratu eta urtebetera, 2005ean, "Onddoak, ondo?" eleberri umoretsua argitaratu zuen, hori ere Gero argitaletxearekin. 2008an bi liburu berri eman zituen argitaratu, Hiria argitaletxearekin: euskal mitologian oinarrituriko "Aiaiko" izenburuko eleberria eta egilearen gogoeta existentzialen berri ematen zuen "Zaude" olerki liburu. Ordutik ez du besterik argitaratu, Hatsaren Posesia literatur aldizkarian aldiro-aldiro ateratzen joan den olerkiak izan ezik.

Ipuinetako animalien marrazki lehiaketa

Hans Christian Andersen-en jaiotzaren urtemugaren harira, apirilaren 2an Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da munduan Eibarko liburutegiak aurten "Ipuinetako animalia bat adopta ezazu" izenburuko lehiaketa antolatu du, Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan dauden irakurle guztiei parte hartzeko aukera zabaldua. Liburutegiko arduradunek azaldu dutenez, "parte hartzaileak irakurritako liburu bat hautatu beharko du, baina bertan kontatzen den istorioan animalia batek (erreala edo fantastikoa) protagonismoa edo zeresan handia izan beharko du, lehiakideek horren marrazkia egin beharko dutelako. Nahi izanez gero, liburuak aukeratzen lagunduko diegu. Marrazkia egiteko orria liburutegian jaso eta entregatu beharko dute. Lanak jasotzeko azken eguna martxoak 18a izango da".



"Pankreas" ikusgai

Sormen lan dramatiko onenarentzako Ramon Ercilla saria jasoko duen Patxo Telleriaren lanarekin gozatzeko aukera izango dugu datorren astean, 8an erdaraz eta 10an euskaraz eskainiko duten emanaldietan.



Barixakuak jolasian txiste eta magia artean

Aurreko barixakuan, guraso berbalagunentzat antolatutako Barixakuak Jolasian ekimenaren barruan, saio bikaina eskaini zieten horien seme-alabek. Denetarik ikusi eta entzuteko aukera izan zuten: magia- eta dantza-ikuskitzuna, txisteak, asmakitzuna... Umeek burubelarri jardun zuten lanean, eta gurasoak aho zabalik utzi zituzten.

Mateo Guilaberten argazkiak

Atzotik Mateo Guilabert-en "Vivencias" argazki-erakusketa ikus daiteke Untzagako jubilatuek, ohiko ordutegian: asteburuetan 12:00etatik 14:00era eta astelehen, martitzen, eguen



eta barixakuetan, berriz, 19:15etik 21:15era (eguztinetan itxita egongo da).



Nenoos aisialdi tailerra

Guraso eta seme-alabentzat doaneko tailerra antolatu dute Nenoos-en (Juan Gisasola, 16) biharko, Aste Santurako aisialdi eskaintza ezagutzera emateko asmoz. Tailerra lau eta 10 urte bitarteko umeentzat pentsatuta dago eta 11:00etan hasiko da eta umeek buztin polimerikoa erabilita animaliak sortzeko aukera izango dute. Izena emateko eibar@nenoos.es helbidera idatzi edo 688 802 705 telefonora deitu daiteke.

Bertso-saioa BELEKON

Bertso saioa Belekón

Zapatuan 20:00etatik aurrera bertso saioa eskainiko dute Miren Amuriza eta Manu Goigana bertsolariak Belekón tabernan.





LOREA ARAKISTAIN

Atzeko atea

Letter bana jaso zuten, hala Boiseko etxean nola beste milioika etxe digitaletan, esan nahi da, milioika iPhoneetan. Etxegileak, Appleko Tim Cookek, kontatzen zien nola FBIri planto egingo zion; herritarrak mehatxutik salbatu eta lasai bizi zitezien in America, the Land of the Free.

Hollywoodeko *superhero* bat bailitzan.

Cookek bazekien une hau iritsiko zela. Ez zen gobernuak telefono baterako sarbidea eskatzen zion lehen aldia.

Bazen, ordea, berak *I'd like, but I have no way* erantzungo zion lehena.

Horretarako eraiki ditu azken gailu digitalak, erosleari segurtasuna eskaintzeko; eta, bere burua bidegurutze horretatik kanpo uzteko, behin betiko, *my friend*. Egin dezakeela eta egin behar duela, etorri zaio agindua bueltan, back door edo atzeko ate deritzona eraiki dezan. Sistema bat zeinek telefono guztietarako sarbidea emango lioken FBIri.

Cookek ezetz, ez dela fido, arrisksuegia dela. Eta, beno, FBIri sinisten diona sinisten diola; auskalo zertarako erabiliko duen!

The show will go on, epaitegietan. Non eta telefono-entzuketak legezkoak diren herrialdean. Hala, gaur gaurkoz, segurtasun arloan lidergoan kokatu nahian zebilen Cooki kanpaina doan atera zaio. Ez dago hau ordaintzeko dirurik. Paradoxikoa *performance*

honetako pertsonaien banaketa: enpresa multinazionala herritarren eskubideen alde, herritarrak haien gobernuarengandik babesteko. Sagarrak ere izango du bekaturik, ala ez. To be continued.

39. ANTZERKI JARDUNALDIAK

"Arte de las putas" (JOTACCION/TEATRO DEL TEMPLE)

Martxoaren 4an, barixakuan, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)



Antzezlea: Jose Luis Esteban

Zuzendaria: Carlos Martin

Opuskulu formatua duen Nicolas Fernandez de Moratinen entsegu-hitzaldian oinarritutako antzezlanean, Argiaren Mendean argitaratutako hainbat testutan ez bezala, akzio istorio honetan emakumeari beharrezkoa zor zaion garrantzia eta errespetua ematen zaio. Umorez, ironiaz, satirarekin, samurtasunarekin eta indarrarekin kontatutako maitasun istorio honetan hamaika pertsonaia ikusiko ditugu, ehunka ahots entzungo eta musika ere hor izango da, antzele bakarrek.

"Chihuahua Cabaret" (TEATRO MUTANTE)

Martxoaren 5ean, zapatuan, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan (100 minutu)

Antzezleak: Enriqueta Vega, Lander Otaola, Diego Perez, ...

Zuzendaria: Felipe Loza

Konpainia ausart eta distiratsu honek krisi garaietarako egokitutako musikal kritiko, ironiko, euskal-mexikarra eta zonbi samarra sortu du. Kolorez betetako ikuskizuna da, benetako kabareta tartean, keinu bakoitzak bigarren irakurketa bat duena, eta edozein unetan gaurkotasunari lotutako aipamenak eginez. Hunkitzea lortzen duen musikalak ikuslea lehen minututik bereganatzea lortzen du eta, horregatik, emanaldiaren amaieran txalo zaparradak barre algaren tokia hartzea lortuko dute.



"Conjuro" (YUNKE)

Martxoaren 6an, domekan, 17:00 eta 20:30ean, Coliseoan (80 min.)



Ilusio sortzailea: Yunke

Gidoilariak: Anna Moner, Sebastià Carratalà

Egungo ilusionista harrigarrietakoak misterio, edertasun eta arriskuz betetzen du bere magia. Sari ugari jasotzeaz gain, mundu erdiko telebista kate ospetsuenak bere partaidetza eskuratzeko lehiatzen dira, bere "ilusio handi" beldugarriek eta lan edertasunak eszenatokian duen hipnotismoak bultzatuta. Honako hau da Yunkeren ikuskizun biribil eta ospetsuena: lehen saioa, 17:00etakoak, bereziki haurrentzako izango da eta bigarrena ikusle mota guztientzat, magia harrigarrienarekin.

"Pancreas" eta "Pankreas" (TARTEAN TEATROA)

Martxoaren 8an/10ean, martitzenean/egunean, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)

Antzezleak: Fernando Cayo, Alfonso Lara, Santiago Ramos (er)

Antzezleak: Mikel Martinez, Patxo Telleria, Joseba Apaolaza (eu)

Zuzendariak: J. Carlos Rubio (erdaraz) eta Jokin Oregi (euskeraz)

Patxo Telleriak sortutako lanaren erdarazko eta euskerazko bertsioak batera programatu dituzte Jardunaldiotan. Istorio berbera kontatzen badute ere, bi produktu desberdinak dira aldi berean: erdarazkoa mendetako tradizio baten ondarea da; euskerazkoa, aldiz, berrikuntza bat. Hizkuntzak berak, bertsoa egiteko moduak, nortasun berezia ematen diolako bakoitzari. Eta, jakina, euskerazko antzezlari bat bertsoz ikusigabea delako.




"Barbecho"

(NATXO MONTERO)

Martxoaren 11n, barixakuan, 20:30ean, Coliseoan (65 minutu)

Ermuko kazuelatxo lehiaketan

Martxoaren 7tik 13ra bitartean Ermuko kazuelatxo lehiaketaren 6. edizioa egingo da. Lobiano elkarte gastronomikoak antolatutako lehiaketan parte hartzeko 25 tabernak eman dute izena eta, lehiaketa martxan egongo den egunetan bezeroek bakoitzak aurkeztutako proposamena probatzeko aukera izango dute, 1'5 euro ordainduta.




Euskerazko film laburrak Soraluzen

Laburbira zirkuitoak iaz ekoiztutako euskerazko 8 film labur proiektatuko ditu Soraluzen, herriko antzokian, martxoaren 10ean (eguna) 21:00etatik aurrera. Proiektatuko diren lanak hauek dira: "Zea Bingo" (7'), Ane Urkiola; "Erreplika" (14'30"), Iñigo Gaiton Gonzalez de Txabarr; "Jorrai" (3'), Uda Films; "Fishura" (6'45"), Yago Mateo; "Bere bizitzetako bat" (8'), Aitor Gametxo; "Brunilda" (12'50"), Eriz Alberdi; "Hartz Txiki" (16'30"), 'The Arlotes', Uraitz Soubies; eta "Semeak" (7'25"), Iker Azkoitia.hartzea libre.

Kalamura igoera

Etxebarriko Gazte Asanbladak antolatuta, martxoak 5ean X. Kalamura Igoera jokatu da. Lasterketan parte hartzera doazenak 10:30ean irtengo dira, Olaia aurretik. Oinez doazenen irteera, berriz, 09:15ean izango da. Sari banaketa egin eta jarraian pintxoak eta edariak egongo dira indarrak berritzeko. Parte hartzeko izen-abizenak etxebarrikogazteasanblada@gmail.com helbidera bidali behar dira. Inskripzioak 5 euro balio du.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Aitor Javier Etxeberria Zubiaurre. 54 urte. 2016-II-25.
- Rosario Garcia Baños. 92 urte. 2016-II-26.
- Jabier Mujika Leturiondo. 69 urte. 2016-II-28.
- Natividad Hernando Postigo. 89 urte. 2016-II-28.
- Camilo Nieto Araujo. 86 urte. 2016-II-29.
- M^a Teresa Barrenetxea Arrizabalaga. 96 urte. 2016-II-29.
- Asun Atutxa Arruabarrena. 80 urte. 2016-II-29.
- Miren Beaskoa Aboitiz. 97 urte. 2016-III-1.

jaiotakoak

- Syed-Ahmed Adeel Maturana. 2016-II-24.
- Unax Gesalaga Beristain. 2016-II-27.
- Martin Gastesi Opazo. 2016-II-27.
- Pablo Huerta Zubizarreta. 2016-II-28.
- Hind Taghzouti. 2016-II-29.

farmaziak

- Barixakua 4
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 5
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 6
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Astelehena 7
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 8
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 9
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguena 10
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Barixakua 11
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

	8			6		4	2	
					4			
	6			1		7	3	9
8		9				5	7	
	4	7				3		6
4	5	1		3			8	
				9				
	3	2		8			5	

7	2	8	3	6	9	4	1	5
5	4	3	2	8	1	9	7	6
1	6	9	4	5	7	3	8	2
8	9	2	5	7	4	6	3	1
4	1	7	9	3	6	2	5	8
3	5	6	1	2	8	7	9	4
9	3	4	6	1	5	8	2	7
6	8	5	7	9	2	1	4	3
2	7	1	8	4	3	5	6	9

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 4

GAZTELEKUA

16:30. Play/Wii eta karaokea. Indianokuan.

BILERA

16:30. Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Arrate Kultur Elkartearen.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Arte de las putas. Una historia de amor" (Jotacción). Coliseoan.

Zapatua 5

BIHARRIAN

10:00/18:00. Biharrian Plaza eraikitzea, Pez Estudiorekin batera.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00-14:00 & 16:30-20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

XXV. EIBARKO DUATLOIA

16:45. Irteera eta helmuga Untzagan.

ERRUGBIA

17:00. "Errugbi zinta neska" torneo. Hezkuntza Esparruan.

GAZTELEKUA

17:00. Karaokea. Indianokuan.

TAILERRA

17:00. "Ze nolako biharra, emakumeena!". Armagintzaren museoan.

ZINEA

17:00. "Hotel Transylvania 2" umeendako emanaldia, doan. El Corte Inglesan.

BERTSOAK

20:00. Miren Amuriza eta Manu Goigoganarekin. Beleko tabernan.

ANTZERKIA

20:30. "Chihuahua Cabaret" (Teatro Mutante). Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA

22:00. The Rockos, Eroa Naizen eta Garrapata. Txaltxa Zelaian.

Domeka 6

LILATOIA

08:15. Donostiara joateko autobusaren irteera (buelta 13:30ean). Ego Gainetik.

BIHARRIAN

10:00-15:00. Biharrian Plaza eraikitzea, Pez Estudiorekin batera.

PAELLA SOLIDARIOA

11:00-17:00. Lagunak elkartearen eskutik. Pintxo eta edari salmenta. Paella 13:00etatik aurrera (3 euro). Untzagan.

GAZTELEKUA

17:00. Karaokea. Indianokuan.

ANTZERKI JARDUNALDIK

17:00 & 20:30. "Conjuro" (Yunke). Coliseo antzokian.

Astlehena 7

IKASTEN

10:00. "Telefono mugikorraren erabileraren hasiera" tekno-foruma. Untzagako jubilatuei etxean.

CARE-REN BILKETA

11:00-13:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa. Landare garbitzaileak: Eztainu-belar edo azeri-buztana, txikoria-belarra, sorgin belarra edo mando-belarra eta erretzea. Portalea.

Erakusketak

Martxoaren 6ra arte: "Palestinako emakume errefuxiatuen bidai luzea" (Portalean). "Supervivientes en busca de refugio. Krisi humanitarioan galdutakoak" (Topalekuan)

Martxoaren 13ra arte: "Nondik nora?" eta "Emakume iraultzaileak" (Topalekuan)

Martxoaren 8tik 20ra: "Itsaspeko bihotzak" (Juan San Martin liburutegian)

Martxoaren 20ra arte: "06/16". Gorka Larrañaga (Portalean)

Martxoaren 23ra arte: "Zatarra arte izan arte!". Ana Orozko (Armagintzaren Museoan)

Martxoaren 31ra arte: Juan Ignacio Aizpurua (El Ambigú kafetegian) / Anna Selga (Portalea tabernan) / Kepa Gonzalez (Klub Deportiboan) / Iñaki Campos (Ez Dok tabernan)

Martitzena 8

IKASTEN

10:00. "Testamentuen legearen aldaketak" hitzaldia, Juanjo Alvarezaren eskutik. Armeria Eskolan.

EMAKUMEEN EGUNA

11:30. Martxa Lila, Amañako Berdintasunaren pasealekutik abiatuta.

14:30. Bazkaria.

19:30. "Ez gaude joko z kanpo, martxan gaude" elkarretaratzea. Untzagan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

CARE-REN BILKETA

17:00-20:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Comunicacion y resolucion de conflictos". Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Debabarreneko emakumeak XVI. mendean", Arantza Lasaren eskutik. ...eta kitto!-n.

IRAKURKETA KLUBA

19:00. Gaztelarazko irakurketa kluba: Eduardo Mendozaren "Sin noticias de Gurb". Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Pancreas" (Concha Busto. Centro Dramático Nal.). Coliseoan.

Eguaztena 9

IKASTEN

11:00. Mendi-ibilaldia: Donostia inguruko ibilaldiaren 3. atala.. Bazkaria eraman. Trena Ardantzatik irtenda.

CARE-REN BILKETA

17:00-20:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

DOKUMENTALA/LIBURUA

19:00. "Debekatuta dago oroitzea" dokumentala eta "Educacion, memoria e historia de las mujeres vascas" liburuaren aurkezpena. Topalekuan.

LIBURU AURKEZPENA

19:00. Elene Lizarralderen "Rocio en el corazón". Portalean (areto nagusian).

BILERA

19:00. Euskal Jaiaren i ngurukoa. Klub Deportiboan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 10

IKASTEN

10:00. "Bioetika" hitzaldia, Mabel Marijuan-en eskutik. Armeria Eskolan.

CARE-REN BILKETA

17:00-20:00. Errefuxiatuei bidaltzeko material bilketa, Errefuxiatuei Laguntzeko Eibarko Taldearen eskutik. (Argatxa, 5ac).

PROIEKZIOA

19:00. "Jai Alai Blues" filma. Biharrian espazioan.

BILERA IREKIA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenarena. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIK

20:30. "Pankreas" (Tartean Teatro). Coliseoan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JUNE, astelehenian sei urte haundi beteko dozuz-eta. Muxu haundixak famelixaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, ASIER, eguaztenian urtia bete zenduan-eta. Patxo haundi bat aitxitza, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, AMETZ, pitxin! Ondo pasau zure 6. urtebetetzian! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIKE, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitona, Ilho, amona eta etxekuen partez.




Zorionak, GORKA Bordas, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be Amaiaeren partez.




Zorionak, ALAINTXO, haraiñegun sei urte egin zenduazelako. Famelixaren eta, batez be, Igor eta Kaien partez.



Zorionak, ENARA, haraiñegun 9 urte bete zenduzen-eta. Segi beti bezain jator eta txintxo eta ondo ospatu bixar!!



Zorionak, MARTXEL, bixar hiru beteko urte beteko dozuzelako. Milla zorion eta patxo etxeko danon partez.



Zorionak, NAIA, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, ANE, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat Eibarko aitxitza eta amamaren partez.



Zorionak, EKI, hillaren 1ian zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE, gure printzesak domekan sei urte beteko dittu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, bikotea! AURKEN-ek bixar 9 urte beteko dittuelako eta JON-ek urtebete egin dabelako oin dala gitxi. Milla patxo bixondako, etxekuen partez.




Zorionak, MAIALEN eta BEÑAT!! Milla laztan potolo famelixa guztiaren partetik!!



Zorionak, IGOTZI!, bixar hiru urtetxo beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LEIRE Garate Montes, haraiñegun urtiak bete zenduaz-eta. Famelixaren partetik.



Zorionak, AIORA, gure maitia, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta Oihenarten partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

5ean: 17:00, 19:45, 22:30

6an: 17:00, 20.00

7an: 20:30

"La ley del mercado"

Zuzendaria: Stephane Brize

(2 ARETOAN)

5ean: 19:45, 22:30

7an: 20:30

"iAve, César!"

Zuzendaria: Cohen anaiak

(ANTZOKIAN)

5ean: 17:00 (2), 19:45, 22:30

6an: 17:00 (2), 20.00 (2)

7an: 20:30

"Cien años de perdón"

Zuzendaria: Daniel Calparsoro

(ANTZOKIAN)

5ean: 17:00

"Robots. La invasión"

Zuzendaria: Jon Wright



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Ipuruako bolera ondoan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Merke. Tel. 675-248806.
– Pisua salgai Eibarren, Jardinetan kalean. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Egoera onean. Tel. 610-715548 eta 680-880140.

1.2. Errentan

– Pisu txikia hartuko genuke errentan Eibarren edo inguruan. Tel. 602-674359.
– Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-377921.
– Pisua alokagai Eibarren. Jantzita, dena kanpora begira eta oso egoera onean. Tel. 677-865362. Alex.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 630-407207.
– Epe motzean, Elgoibarko Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabilta. Tel. 943-254252 eta 645-599810.
– Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Urkiko Polonia Etxebarrian. Gazteendako egokia. Tel. 688-803449.
– Garaje itxi handia alokagai, Urkizuko dorreen azpian. Tel. 649-977852. Mari Carmen.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-248959.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-245889.
– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Tel. 663-358003.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-441517.
– Mutila eskaintzen da garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia kamarero moduan eta lantegian. Tel. 625-997599.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 602-022174.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta pegorak garbitzeko. Tel. 662-099453.
– 53 urteko emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 634-110341.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-767696 eta 658-273486.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 697-372374.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 663-524539.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 696-509360.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Tel. 634-748531.
– Neska eskaintzen da asteburuetan eta astegun arratsaldetan bi orduz nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa egiteko. Tel. 632-758270.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, jatekian lagundu eta garbiketa egiteko. Tel. 631-981157 eta 602-090439.
– Neska eskaintzen da etxeko garbitu eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 633-808931.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-911709.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa egiteko. Tel. 673-404402.
– Emakumea eskaintzen da etxeko beharrak edo garbiketa egin, nagusiak zaintzeko, etb. Tel. 666-380843.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketa egiteko, etb. Tel. 666-074924.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduz gabela. Tel. 680-973549.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduz gabela. Tel. 603-683176.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-893250.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 744-403068.
– Gizarte-langilea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 686-592841.
– Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 655-143467.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-458271.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (Lanbideren titulua) eta beste lanetarako. Tel. 640-209948.
– Emakume euskalduna eskaintzen da orduka etxean lan egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita gauzez ere) zaintzeko, pegorak garbitzeko, etabar. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-065826.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa egiteko. Tel. 632-506715.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa egiteko. Tel. 634-127294 eta 672-867999.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 604-331053.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa egiteko. Tel. 608-356453.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa egiteko (pegorak, enpresak...). Tel. 620-172543.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa egiteko. Orduz gabela. Tel. 679-910991.
– Neska eskaintzen da 13:00etatik aurrera garbiketa lanak egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-743638.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 633-357538.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-995976.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko garbitzeko. Tel. 656-866255.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu (baita gauzez ere) eta garbiketa egiteko. Tel. 632-337083.

4.2. Langile bila

– Pertsona behar da goizez ordubete lan egiteko. Tel. 636-550740.
– Emakumea behar da etxeko lanetarako. Deitu 18:00etatik aurrera. Tel. 649-388582.
– Euskalduna behar da asteburuetan barran Eibarko jatekete batean lan egiteko. Bidali curriculum-a argazkiarekin 46 postakutxatilara.
– Pertsona bat behar da asteburuetan eta jaiegunetan Eibarko taberna batean lan egiteko. Tel. 650-409249.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da Eibarko akademia batean unibertsitate mailako Algebra, Kalkulo eta barreko klaseak emateko. Tel. 679-560138.

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Solarium bertikala salgai, plataforma biratoroarekin. Tel. 619-679523.
– Juan Serrano margolariaren hainbat kuadro salgai. Tel. 656-710155 eta 943-207703.
– Fuchs & Mohr hormako piano alemaniarra salgai. Intxaurren kolorean lakatuta. Taburtea opari. Deitu 19:00etatik aurrera. Tel. 656-758793.
– Neskaren jaunartzeko soinekoa salgai. Berria. 14 urtekoaren neurrikoa. Tel. 638-605006.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Berba
Logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. LOU) (L.)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistik

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - sclaruartera
943 20 19 82



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Miopia ebakuntzak
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maider Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

Tel. 605 75 75 06

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa

1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Disfoniak
- Dislexiak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIEZ. ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023





Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com